

• ASTERKO GAIA •

Lopez lehena Ajuria Enerako azken txanpan

Legez kanporatutako ezker abertzaleari PSOEn gobernuak Eusko Legebiltzarrerako atea itxi izan ez balio, egunotan bizi den kiniela giroak bestelako aukerak izango lituzke bere laukitxoetan. Atera den argazkia urratua da, ez da egiazkoa eta, beraz, legealdi osoak nozitu beharko ditu horren ondorioak.

XABIER LETONA

Argazkiak: Jon Hernaez / Argazki Press

EZ DA TXANTXETAKO INDARRA Legebiltzarretik kanpo geratu dena, azken negoziazio prozesuaren erpinetakoa zen. Edozelako konponbiderako orduan giltzarri zena, hala da gaur egun ere, argazki instituzionaletik kanpo utzita ere. Errealitatean abertzaleak nagusi atera dira berriz EAEn, azken 30 urteetan bezala.

Baina begiak ez daude legez kanpokoen- gan, orain begi guztiak daude Ajuria Eneko hurrengo maizterraren izen bila. Bototan EAJ da garaile, aise, pentsatutakoa baino askoz samurrago gainera. Baina Ajuria

Eneko lasterketa ez da amaitu eta hor ondo- en kokatua Patxi Lopez geratu da.

Eta bai, aukera historikoa gauzatzear egon liteke. Bloke konstituzionalistak lehenbizikoz har dezake EAEko lehenda- karitza eta aukerazkoena PSEk hori balia- tzea da, horrek legealdi osoan burukomin franko ekarriko badio ere. Hobe buruko- minak agintearen beroan betiko oposizio hotzean baino. Eta Lopez lehendakari bai, baina zer gobernu motarekin? Izatekotan, PSEk bakarrik gobernatzea izango da logi- koena, hori bai, oso kontuan hartuta etor-

Malabarismo politikoan jauzi berria emanez, Patxi Lopezek bakarkako gobernu osoa dezake, minorian eta etengabeke sostenguak bilatuz.



kizunera begira oso formula arriskutsua dela Basagoitiren besotik gobernatzea; suizida litzateke harekin koalizio gobernu osatzea. Lopezek hauteskunde gauean frontismoaren amaiera iragarri izanak, gainera, bere asmoak ildo horretatik bidera ditzakeela iradokitzen du.


Baina nola frontismorik ez, frontismotik erdietsitako gobernuan? Formula konstituzional horretan, euskal lurretan giltzarritzat jotzen diren gai askotan frontismoa indar handiz egongo litzateke presente, erabaki eskubidea, gatazkaren ebazpena, ilegalizazioa... Oso egun gutxitan malabarismoa ikasi beharko du Lopezek bakarkako gobernu horren etengabeko sostenguen bila. Hori izan liteke "frontismoaren garaia bukatua da" hitzen atzean suma daitekeen gobernu izaera konplexua.

PPk itxuraz horren merke zergatik jokatu-ko lukeen galdetzea ere logikoa da, formula honetan gobernu ia doan emango bailioke PSEri. Ez dirudi PPrentzat hain desiraturatua den Arabako diputazioa salerosketa horretan jokatu denik. PPk lehendakaritza eman egingo dio, batetik jeltzaleak aipatutako aukera historikoa baliatzeagatik, eta bestetik, legealdi osoan zehar Lopez baldintzatzeko

ahalmenak askoz joko politiko zabalagoa ematen diolako.

Bakarkako balizko gobernuan, ilegalizazio eta gatazka kontuak, adibidez, PPrekin lotuko lituzke PSEk, hezkuntza eta hizkuntza EAJrekin, azpiegitura kontuak lasai asko jeltzale eta popularrekin batera, krisi kontuetan ere ez dirudi arazo handirik izango dutenik EAJ edo PPrekin. Gerri malgua behar du Lopezek, baina etengabeko sostenguak bilatuko duen gobernu jarduna gauzatzearena erreala da, batez ere kontuan hartuta azken urteetan eman dela jada gisa horretako jokamoldea jeltzaleekin batera: aurrekontuetako elkartrukeak hor dira, Legebiltzarreko lege askotan izandako adostasunak ere bai. Jakina, hau guztia oso desberdina litzateke EAJ oposizioan balego, areago hauteskundeak berak irabazi dituenean. Baina elkarlana berria ez da.

Beste kontua da PSEren multzo handi batek nola eramango lukeen PPren sokatik horren motzean lotuta abiatzearena. Mikatza litzateke, baina mikatzagoa loria ukitzeko aukera izan eta baztertzearena. Etorkizunera begira, denak adierazten du garrantzitsuen gobernuari behingoz kosk egitea dela, moka-du goxoena berriz ere biharko utzi barik.



Boto kopurua		
Alderdia	2009	2005
EAJ:	396.557	468.117*
PSE-EE:	315.893	274.456
PP:	144.944	210.614
Aralar:	62.214	28.180
EA:	37.820	468.117*
EB-B:	36.134	65.023
UPyD:	22.002	----
EHAK:	----	150.644
D3M:	100.924**	----
Abstentzioa:	% 34	% 32

* EAJ eta EA koalizioan aurkeztu ziren 2005ean.
** Baliogabeko boto guztiak egotzi dizkiogu D3Mri. 2005ean, 4.035 bozka izan ziren baliogabekoak.

Oztoporik izatekotan Madrilen izango du hori PSEk, Zapaterok badu jeltzaleen beharrik, baina Jaurlaritza ez da dena, eta behin malabarismotan sartuta, Gasteizko Legebiltzarra bai, baina diputazioak eta hiriburuak ere hor dira, eta orain artean bederen EAJ eta sozialisten arteko akordioetatik erdietsi da haien gobernagarritasuna. Gaitza da irudikatzeko jeltzaleak bete-betean sozialisten kontra, beste erakunde askotan ere haien beharra ere badute eta. Espainiari begira, gainera, bai Nafarroan bai EAEn espainiar konstituzionalismoa garaile agertzea irudi garrantzitsua eta indartsua da.

EAJ, etxeko marka

EAJk arrakastaren gakoa darama patrikan eta ezuste kontuetan maixu dela erakusten du behin eta berriro. Labelarena inork baino hobeto saltzen duela frogatu da berriro. Ibarretxek eta EAJk –ordena garrantzitsua da– ostera lortu dute garai-pen argia, hala ere gaitz dute Ajuria Enean hamaikagarrenez errepikatzea.

Gaitz bai, baina ezinezkoa ez, arinegia litzateke beste barik baztertzea. Hori bai, karanbola korapilatsuagoa da. Sei eserleku-

ko aldearekin, ezinbestekoa da Ibarretxe bera lehendakari izatea eta nekez irudika daiteke Lopez haren pean. Baina Ibarretxe ez den beste lehendakari jeltzale baten pean bai, hori posible litzatekeela errepikatu du sarri Lopezek.

Hori ez da berria sozialistentzat eta, gaitza izanik ere, dagoen bigarren gobernu aukera garrantzitsua da. Ez dira falta, dena den, aukera hau lehenesten dutenak, ondorengo orrietan Mirentxu Purroy kazetariak egiten duen bezala. EAJren jauzi nagusi hirukoitza litzateke, baina jeltzaleek ohituta gauzkate horietara. Hori bai, oraindik duen lidergo maila ikusita, harrigarria ere egingo litzateke Ibarretxe joko politiko-tik horrela erretiratzea.

Aralar, txikitik ertainera

Ezusteko nagusienetakoa Aralarrena izan da: botoak biderkatu ditu. EAEn inoizko emaitza onenak lortzeaz gain, ehunekotan gehien igo den alderdia da. Inkestek iragartzen zioten halakorik, baina beste batzuetan ere bai, eta hortik bere buruzagien zuhertasuna. Zenbakiak hobeto aztertu beharko badira ere, legez kanpoko ezker abertzalearen boto

“Olé olé olé, Galicia es del PP”

Leloa ozen kantatu zuten igande gauean popularren hainbat jarraitzailek, Madrilgo Génovako egoitzan. Eta arrazoi dute: inkestak eta aurreikuspenak gaitzitzen, eta erronka zaila bazuen ere, PPK gehiengo osoa erraz lortu du Prestigieren lurraldean. Hauteskunde autonomikoetan inoiz izandako parte-hartzerik handiena egon da (%70,46), duela lau urte baino bi puntu gehiago, eta marea urdina gailendu da: hiri guztietan irabazi du alderdi popularrak. Galiziarrek ez dute aldaketa bozkatu, lehenera bueltatzea baizik, azken legegintzaldiko Gobernuak –Partido dos Socialistas de Galicia eta Bloque Nacionalista Galego osatua– gaztigatuz.

2005ean haize berriak iritsi ziren kaioren gotorlekura. Hamasei urteko *fragismoaren* ostean, PSdeG eta BNG alderdiek indarrak batu zituzten PPri Xuntaren agintaritzaren kantzuko. Diputatu bakarrari esker gailendu zitzaizkion. Baina Emilio Pérez Touriño sozialistaren presidentziapen igarotako lau urteotan, Gobernuak ez du lortu herritarren konfiantza mantentzea eta galdu egin du estreinako azterketa. Parlamentuko 75 aulkietatik PPK 39 eskuratu ditu, PSdeGk 24 eta BNGk 12; Rosa Diezen UPyD alderdia izan da laugarren bozkatuena.

Gehiengo eroso hori lortzeko, meritua egin ditu Alberto



Alberto Núñez Feijóo, PPko hautagaia.

Núñez Feijóo popularren hautagaiak. Manuel Fragaren itzal luzea desagertzea lortu du –presidente ohia Madrilgo Senatura eraman izanak lagundu du, noski–, eta bere diskurtso agresiboarekin eskuineko indarrak batu ditu. Asmo horretan, Galicia Bilingüe taldeak salatzeko duen “gasteleraren marjinazioa” aprobetxatu du Feijóok, eta zalaparta ugari eragin du azkenaldian hizkuntzaren gaiarekin. Atzerapausoa, inondik inora, Fragak berak zaindu beharreko kultur ondareztat baitzuen galiziera. Halaber, Mariano Raxoiren laguntza ere ez zaio

gaizki etorri presidente berriari. Raxoik kanpaina sutua burutu du bere jaioterrian, kasik hautagaia bera bailitzan, eta bere lidergoa indartuta aterata da hauteskunde hauetatik.

Datorren lau urteotarako, galiziarrek ohituta dituen panorama errepikatuko da beraz: PP izango da Xuntan, eta beste inongo babesik gabe gobernatu ahal izango du. Erronka nagusia, kanpaina etengabe errepikatu duten krisi ekonomikoari aurre egitea. Azken asteotan, Vigoko Citróen enpresa erraldoiko arazoek beldurra airean dituzte hortik bizi diren milaka familiak. Ez du lan makala alderdi popularrak.

Mikel García

multzoak bere aldeko hautua egin duela dirudi lehen begiradan. Ez da ahanzi behar nondik datorren. Oso posible da, halaber, Ezker Batuko batzuk ere bereganatzea. Abstentziotik ez du jaso, horrek ez du logika handirik, beraz beste aukera biak dira egiazkoenak. Nafarroako botoekin, alderdi txikia zenak gorputza hartu du ertaina bihurtuz: NaBairen aurreko garaiko bere botoak zenbatuz, 85.000tik gora boto izan ditzake denera.

EAren danbatekoaz asko hitz egingo da oraindik ere, Kongresua iragarria dago eta norbaitzuk larrutik ordaindu beharko dute EAJren besoa alboratu izana. Orain ikustea samurra da, baina hala da. Iñaki Galdosen lerrokoak labana txikiarekin irudika daitezke Kongresuaren atarian zain. Etorkizuna bera da gaitza duena EAK.

Eta beste horrenbeste esan daiteke Ezker Batuari buruz. Egia da Madrazoren alderdia ohituagoa dagoela txikiaren gorabeheran ibiltzen, baina oraingo zartakakoa handiegia izan da eta bere barne egoera ere ez da txalok jotzeko modukoa.



Ibarretxeren eskutik EAJ samur ateratzen da garaile, baina oraingoz PSE-EEren esku dago.

D3M-k atzera

Gaitza da D3Mren datuak beste hauteskundeetakoekin alderatzea, baina bere errealtate jazartuan 100.000 boto lortzea itzela da, sektore horrek euskal gizartean dituen sustrai sakon eta indartsuen agerle. Testuingurua kontuan hartuta nahi bada, baina konparaketak hor dira eta azken hauteskundeetatik hona galera maila bat ikusten da. Ilegalizazioa da

eragile garrantzitsuena seguruenik, baina bake prozesuaren porrotak ere ondorioak izan ditu eta legez kanporatzearen estrategiak ere pentsatu bezain mingarriak dira, maila guztietan, hauteskundeetan ere bai.

2001ean EHk bezala, D3Mk 7 eserleku lortuko lituzke, baina orduan 143.000 botoekin (eta ia 20 puntuko parte-hartze handiagoarekin ere bai). Higatzeak aurrera jarraitzen du eta ordua da ENAMeko ezker abertzaleak behingoz norabide aldaketari ekin diezaion, lurreratzeko plataforma soberanista edo dena delakoa baliatuta, baina 50 urteko estrategia politiko-militarra atzean utziz. ■



Emakumeen Nazioarteko Eguna
Día Internacional de las Mujeres
International Women's Day
Journée Internationale de la Femme

Zina Internazionala a Femellor
اليوم العالمي للمرأة
国际三八妇女节

Gaur, martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna izaki, gure eskubideak eraginkortasun handiagoz beteaz ditzatela eskatu nahi dugu Bilboko **EMAKUME GUZTIOK**, egun oraindik ere ez baitutuzte behar bezala beteazten. Ez ditzate behar bezala beteazten, ez Bilbon bertan sorturiko emakumeen eskubideak, ez beste herrialde batzuetan sorturiko **EMAKUMEENAK**.

Gure esker ona eta babesa adierazi nahi diegu mugimendu feministari eta emakumeen elkartei, bai baitakigu funtsezkoak izan direla eta oraindik ere funtsezkoak direla, justizia eta askatasun maila handiagoak lortu ahal izateko. Gizarte batek ezin du bere burua demokratikotzat jo, baldin eta biziaren erdian desberdintasun egiturazkoen badiude beste erdiekiko. Emakumeen eskubideen alorrean egindako aurrerabideak, izan ere, aurrerabidea dakarkigu gizarte honetan, herrialde honetan, eta hiri honetan, Bilbon, **BIZI GAREN** emakumei zein gizonei.

Migrazio fenomenoak pertsona asko ekarri zituen Bilbora. Noizbait beren bizi-proiektua gure hirian txutzea erabaki zuten emakumeak eta gizoneak. Maleta ez ezik, beren kultura, pentsatzeko modua, jarduteko modua eta adierazteko modu berezia ere ekarri zutenak. Bestelako kulturetako eta sorkeruetako emakumeak etorri ziren Bilbora, baina emakume bilbotar batzuek ere Latinoamerikara eta Europako beste zenbait lekutara emigratu izan dute, eta oraindik ere emigratu ohi dute.

Gutako emakume batzuek senilartekoak zaintzen dihardugu, eta beste batzuk etxeko lanetan aritzen gara, eta, hala, familia askok denbora librea dute, beren bizitza eta lanbideak garatzeko. Lan horiek bihurtu

zaizkigu geure bizi-proiektua antolatzeko daukagun lan-zoko nagusi, gutako askoren prestakuntza eta gaitasunak gorabehera. Nolanahi ere, geure gaitasunak eta ahalmenak hobeto garatzeko asmoa dugu, eta norbere prestakuntzari eta lanbideari hobeto datozkion zereginetan aritzeko.

Elkar ezagutu dugularik, ezustekoa hartu dugu gutako askok, geure baitan dugun indarraz jabetu garelako, eta hainbat forma eta estrategia dabilazteko denok ere nahi duguna lortzeko: **BERDINTASUNA**.

Elkar gaitzen denok, eta bat egin dezagun gure borroka honetan, ekonomia eta kultura aldeen bereiz gaitzen utzi gabe. Onartu behars daukagu, hain zuzen, emakume bakar bat desberdintasun egoeran badago, edonongoa dela ere, halaxe gaudela denok, horiek esan nahi baitu gizarte bidegabe batean bizi garela.

Bat egin dezagun zeregin honetan, emakume batzuek eta besteek, eta salatu ditzagun egoera diskriminazionalak, eta alor ditzagun emakumeek orain artean gizarteari ekarri dizkiogun balio onak, eta oraindik ere badakartzkiogunak.

Horiegatik, denok batera parte har dezagun gaurko egunez antolatutako jarduerara, proiektu eta manifestazio guztietan, eta salatu ditzagun desberdintasun egoera guztiak.

Aurtengo Martxoaren 8an, Bilboko talde feministen koordinakundeak emakume guztiak gonbidatu ditu manifestazioan parte hartzera, 12:30ean abiatuko baita Bilboko Aritaga antzokitik. Guk geuk eta Bilboko Udalak ere parte hartzera gonbidatu nahi zaiztegu. Animatu, eta etorri manifestaziora!

FANG, AMAIA, YULIANA, ITZIAR ROSARIO, IDOIA, WILMA, SUSANA, YELI, MAITE, NILDA, JING WEI, IRENE, CLAUDIA, SUMAYA, BEGOÑA, MARTA EUGENIA, CARMEN, NILSE, REYES, IRATI, NANCY...
eta gure asmo honekin bat datozen hainbat eta hainbat emakume.

